

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BILARKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea jarduera sailkatuaren baimena**

Santiago Bermúdez Irazuk jarduera lizentzia eskatu du udal honetan, gehienez ere 25 txakur edukitzeko Bilarko (Araba) 4 poligonoko 410 lurzatian.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da, jarduera horrek erasan egiten diela uste dutenek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazio eta oharrak aurkezteko, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Bilar, 2020ko ekainaren 19a

*Alkatea*

*ENRIQUE PÉREZ MAZO*